



Joan Santuen eliza (Bilbao)

Jesuitak 1767. urtean kanporatu zituztenean Bilboko udalaren eskuetan geratu ziren San Andres ikastetxearen instalazioak, Zamudioko Atean kokaturik zeudenak. Egoitza eta bere arkupe-patioa sorospen funtzioetarako erabili zen, eta elizara aldatu zen, Ibeni auzotik, Joan Santuen parroikia historikoa.

Erabat zaharberrituta egonik, 1983ko uholdeen ondoren zaharberrituta, eliza ageri zaigu barroko estiloko tenplu bikaina denez, fase klasizistakoa, baita benetako museoa denez ere, hainbat eta hain dira kalitate handikoak bere altzariak.

Eraikina

Elizaren lanak hasten ziren 1622. urtean Aita Ramírez jesuitaren planoen arabera, eta hogeitaz geroago amaitzen zen atzeko aldea, gurutzadura izan ezik, parte hau, kapera nagusiarekin batera, Manuel Ceballos eta Mateo del Rio Santander aldeko harginek kontratatu baitzuten 1673. urtean.

Erreforma batek, XX. mendean hasierakoak, aldatu egin zuen kapera baxudun eraikin gurutze-formakoaren jatorrizko planteamendua, kapera horiek elkartu baitzituen alboko nabeak bailiran. Ez zen aldatu, ordea, kaperen gainetik elizara irtetzen den tribuna ataburuarearen formulazio berezia, korua gurutzadurarekin eta burualdearekin lotzen dituenak.

Eraikinaren merezimendu artistikoak fatxadaren bertan hasten dira, hiru kaletan formulaturik dagoela. Erdikoa, besteen zabalera eta altuera bikoitzekoa, albokoekin lotzen da horma-hegats konkaboekin bitartez. Erdiko behe-maila guztia sarrera itzaltsu batek okupatzen du, erdi-puntuko igarobidea duela zutabe doriko bikoteen artean, ordena horretako taulamendu bati eta ispilu bat bildu eta pinakuluz beterik dagoen frontoi trianguluar bati eusten dieten zutabeen artean. Goialdeko zatiak frontoi erdizirkularrezko dinteldun leiho bat eta bi armari biltzen ditu: jatorrizkoa Domingo de Gorgolla fundatzailearena eta, beste baten ordean, Borbon etxekoa. Erremate orokorrak sarrerako frontoiaren formak errepikatzen ditu. Albokoak oso sinpleak dira, gainezarritako bi leiho dinteldun dituztela kapera baxuen eta tribunen atzealdeko tarteetarako. Muturretan oso nabarmen gertatzen dira pinakulu piramidal batzuk, nahiko tentsio bertikala agertzen dutenak.

Hegoaldeko gurutzadura eta alde horretako tribunen gainetik irekitzen diren leiho berogarriak -erdizirkularrak eta bi mainel bertikal dituztela- dira argiune garrantzitsuenak. Iparraldean tenplua itsua da, alde horretatik erantsita baitu klaustroa.

Estaltzen da eliza, XVII. mendean moda zenez gero, gangatizko igeltserotzako gangaz, kaskoak diedro eta bestelako figura geometrikoen dekoraturik daudela, eta kupula guztiz behekatu eta gurutzaduraren gaineko ezkata erradialez aberastu batez. Ozta-ozta barrokatzeko dute formula hori anagrama batzuek eta egiturazko arkuen kasetoiek, kupularen erlaiz-oinarria finkatzen deneko petxinak eratzen laguntzen dutenak. Francisco Elorriaga igeltseroak ezin zuen 1675etik aurrera.

Aita Ramírezek 1617an jaso zuen eliza taxutzeko agindua. Ezezaguna da, baina bere lanari begiratuz gero, oso profesional prestatua izan bide zen, eta, inondik ere, ongi menperatzen zuena jesuiten erako tenpluaren formula, aurreko mendean Gaztelan erabilia zena: Villagarcía, Palentzia, Valladolid. Jesuiten erako eliza mota honetako lagin nabarmena eskaintzen du Bilbok.


Altzariak

Erretaula barroko batzuek osatzen dute elizako altzarien katalogo ugaria. Handiena, XVII. mende amaierako barroko naturalista, ikusgarri gertatzen da, bere mahatsez eta pinturez beteriko zutabe salomondarrekin. Estilo eta garai horietakoak dira kaperetako sei erretaula, baina XVIII. mendekoak dira, ordea, sarreratik hurbilen dauden biak: Bihotz Santuarena, tipologia interesgarria agertzen duena, eta San Rafaelena, protorrokoko estilokoa.

Vera Cruz izeneko Kofradia historikoaren egoitza izanda, elizaren gurutzadura erakusten dira Kristo titularra, XVI. mendean erdi aldekoa eta Juan de Beaugrant irudigilearen oso lan purua dena, eta Ama Birjina Nahigabetua, janztekoa, XVIII. mendeko eta Raimundo Capuz eskultore sortaldetarrak egina.

Horiek baino zaharragoa dugu Gurutzetokiko Kristo irudia, 1500 ingurukoa, tamaina handiko taila hispaniar-flandestarra, sarreraren eskuinaldeko lehenengo kaperan kokaturik dagoena. Hainbat mendetan Bilboko gurutzetoki desagertuan egon zen.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Joan Santuen eliza

Bilbao. (Gurutzeko kalea, 2.
Tf: 944 153 997).

Bisituen ordutegia:

Astegunetan:
8:30 - 12:00 eta 17:30 - 20:00
Zapatuetan:
10:00 - 12:00 eta 18:00 - 20:00
Domeketan:
10:30 - 13:15 eta 18:00 - 20:00

(Kultua ematen ari den bitartean ezin izango dira elizak bisitatu).

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bilbao)

- Euskal Museoa.
(Gurutze kalea, 4).
- Bidebarrietako Udal Liburutegia.
(Bidebarrieta kalea, 4).
- Santiago Eliza.
(Santiago plaza).
- Plaza Barria.